

Egoera epidemiologikoa hobetzen ari da

Osasun Alarma egoera bertan behera utziko du Espainiako Gobernuak. Andoain eremu gorritik irten da, eta Urnietako egoera hobetuz doala dirudi / 10



Bikain ari dira Urnieta Kirol Elkarteko eskubaloit ataleko emakumezkoak / 12



Parte hartze prozesu bikoitza abian jarriko du Urnietako Udalak, datozen egunetan / 9



Indar handiagorekin itzuliko dira

Santa Krutz Jai Batzordeak horma-irudi bilakatu du itxaropenez beteriko mezua / 2-5



barne

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK

>> 44€

2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK

>> 97€

5 m² / BEZa barne



ASKOTARIKO TAMAINA
ETA AZALERAK



BIDEKOZANTZA
24 ORDU



SARBIDE
ETENGABEA



605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Muebles Itarbe
barne.eus



Ostiral iluntzean hasi eta larunbatean margotze lanetan jarraitu zuten. AIURRI

Itxaropenez beteriko mezua horma-irudian

Santa Krutz Jai Batzordeak ezer gutxi antolatu ahal izan du aurtengo jaietan. Etsipenean ez murgiltzeko eta ilusioari eusteko horma-irudia marraztu dute, indar handiagoarekin itzuliko direla adieraziz. Konturatu orduko bertan dira 2022ko Santakrutzak

Erredakzioa ANDOAIN

Jaiak iritsi aurretik, inork gutxik irakurri nahi zuen oharra zabaldu zuen Jai Batzordeak: Aurtengo ere ez da tokatzen. 2022rako

deitu dituzte festazaleak, eta indar gehiagorekin itzuliko direla ohartarazi: "Zaindu gaitezen, datorren urtean berriro bueltan izan ditzagun auzo bazkaria,

pintxo lehiaketa, kuadrillen eguna, erreka jaitsiera, sagardo lehiaketa, kontzertuak, danborradak eta herriko eragile desberdinen ekitaldi gehiago".



Jai Batzordearen eskutik

Prestaketa lanei ostiral iluntzean ekin zioten, eta larunbat osoan zehar margoketa lanetan jarraitu zuten. Jai Batzordea elkartzeko aukera bakarrenetakoa izan zen. Mezu itxaropentsua margotzearekin batera, elkarrekin egun polita igaro zuten.



Kale Nagusian apaindutako leiho eta balkoiak ez dira gutxi izan. AIURRI

Jaiak gogoan, balkoietan eta leihoetan

Jaiak gogoan hartzen zituzten zapiak, ikurriñak eta bestelako elementuak ez dira jaien eremura mugatu. Herrigune osoan ikusi dira jai egunetarako apaindutako leiho eta balkoiak. Jaiak ospatzea ezinezkoa izanik ere, Santakrutzak gogoan hartu zituzten

Erredakzioa ANDOAIN

Jaiari eusteko baino gehiago, tradizioarekin ez hausteko keinu ugari ikusi ditugu herrigunean. Jaietako zapia, ikurriñak, blu-

xak..., festazale askok jaiarekiko atxikimendua erakutsi dute jaiak ospatu behar ziren egunetan. Kale Nagusiko eta Zumea plaza inguruko balkoi eta leihoetan

nagusitu badira ere, Santa Krutz jaietarako apaindu dituzten balkoi gehiago ikusi ahal izan dira Etxeberrietan, Arrate plazan eta udalerri osoan barrena.



Zumeatarraren ospakizun handiak iristear dira. AIURRI



Aingurasutegi aldean jaiarekiko atxikimendu handia dago. AIURRI



Zapiak, ikurriña, puxikak... Auzoa girotu duten balkoiak askotxo izan dira. AIURRI



Santa Krutz eguneko bertso saio telematikoa

Punttuka bertso eskolako Beloki anaiak, Eskudero eta Ormaetxea Lasarteren esanetara aritu ziren kantuan

Erredakzioa ANDOAIN

Punttuka bertso eskolak antolatuta, Beñat Beloki, Aritz Eskudero, Unai Ormaetxea eta Ion Beloki bertsoan aritu ziren online bidez eskaini zuten saioan. Maiatzaren 3an izan zen, Santa Krutz egunean, Arkaitz Lasarte gai jartzailearen esanetara jarrita. Laukoteak elkarrekin osatu zuen ordubeteko saioa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago, bideoen atalean. Hona lau bertsolariak kantatu zuten agurreko bertsoa:

Beñat Beloki:

*A ze sorpresa, emozioa
Andoainera heltzean
Ion eta Arkaitz ikusi ditut
hor balkoiaren ertzean.
Korrika eta presaka denok
afalduz kriston letxean.
Bueno, ba benga, hasi gaitzen,
earki gaude nire etxean.*

Aritz Eskudero:

*Festarik gabe, Santa Krutz
gatoz ospatzea.
Urtebete pasa da ta
ein degu atzea.*

*Gauza bat oso zaila da,
goazen onartzea:
nahiz ta koronabirusa
zail den gainditzea.
Gauza bat oso zaila da
goazen onartzea:
urtero armario barruan
blusa aurkitzea.*

Unai Ormaetxea:

*Parranderorik ez da iritsi,
ez digu ekarri trenak.
Adio, bada, txosna ondoan
isurtzen ziren kemenak.
Bluxa jantzita bainan barrutik*

MAIATZAREN HIRUKO BERTSO SAIOA IKUSGAI DAGO AIURRI.EUS WEBGUNEAN



Lasarte, Beloki, Ormaetxea, Eskudero eta Beloki bertso saioan. PUNTTUKA

*eramaten dira penak,
Baina mahiaren bueltan gaur ere
hementxe gaudela denak.
Hurrengo urten ospatuko dia
aurten ospa ez direnak. (bis)*

Ion Beloki:

*Lengo urtean gure etxetik
nola ginaden gu jardun.*

*Gaurko honetan gela batean
gaude gu sei bat ezagun,
egiya esanda gustura asko
ari gera gu gaur egun.
Afari eder bat egin
degu ta
hola jarraitu dezagun.
Etxe horretan zaudeten horri,
gabon eta kaixo lagun.*



AIURRI

Jaiaren izpirituari eutsi nahian

Jaiarekin zerikusia duten tradizioak ez ziren falta izan, larunbatean eta maiatzaren 3an bereziki nabarmendu zirenak. Koadrila bat baino gehiago bluxa jantzita irten zen larunbatean. Urtean behin bederen, armairutik atera eta kalera ateratzeko garaia zela ulertu zuten. Bestalde, eta iazkoa errepikatuz, Bixente Zabala txistua joz ibili zen Kale Nagusian eta inguruan.

GORA ETA BEHERA



Jokabide desegokiak

Larunbat gauean, Belabi ondoko aparkalekuan sei ibilgailuren gorpilak zulatu zituzten. Zentzurik ez duten jokabide desegokiak dira.





Ezpata-dantzariak eta txistulariak Unanibian, apirilaren 24an egin zuten grabaketa saioan. AIURRI

Ezpata-dantzariak ETBn agertu zirenekoa

Maiatzaren 3an hasita, bista ugari pilatu ditu espata-dantzarien bideoak. Egun hartan ikusitakoa joan zen apirilaren 24an grabatu zen, eguraldi ederra baliatuta. Alba Cabrera eta Mikel Arberas Aiurriko kideak ekoizpen lan osoaz arduratu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Apirilaren 24a, larunbata. Goizeko 08:45ak aldera geratu ziren Unanibia zubian, arduradunekin hitz egin eta grabaketa baino lehenagoko azken ukituak egiteko. Grabaketa berezia izanik, baliabide ugari erabili zituzten; hiru kamerekin eta dronarekin lanean aritu ziren. “Unanibiko zubia bezalako leku magiko batean, ahal bezain beste irudi jaso nahi genituen, bideoa modu egokia osatzeko. Ez hori bakarrik, airetik hartutako irudiek bideoari ez-ohiko ikuspegi bat eman zioten”, aitortu du Mikel Arberasek.

Grabaketa lanak ia bi ordu iraun zituen, ezinbestekotzat jotzen baitzuten alde guztietatik planoak grabatzea. Nabarmendu beharra dago, dantzariak ez ziren fisiko handia egin zutela, dantza lau zapabost aldiz errepikatu baitzuten. Hainbat egunez edizio lanean murgilduta ibili eta gero, andoaindar askok txalotu duten ekoizpena izan da.



Zabalkunde handiko bideoa

Euskal Herrian barrena arreta zabala lortu zuen, maiatzaren 3an. Eitb Kultura kanalean eta maiatzaren 3ko ETBko albistegietan, espata-dantzarien bideoarekin albistea zabaltu zuten. Dantzan eus webgune ezagunak ere zabalkundea eman zion bideoari.



1961eko auzoen arteko batelaren txapelketa irabazi zuen Zumeako tripulazioa, Ramon Markotegi eta Juanita Ikutza abanderatuekin. Arraunlariak, zutik eta ezkerretik hasita: Juan Loigorri, Pako Arnaiz (patroia), Jesus Sarasibar, Luis Mari Arnaiz eta Jabier Martxueta. ANDOAINGO UDAL ARTXIBOA, ©TRUCHUELO (1961)

1961eko Santakrutzak gogoan

Hirurogei urte eta gero, Santa Krutz jaietako hainbat ekitaldi tradizio bilakatu dira

Xabier Lasa ANDOAIN

Meza eta prozesioak, herriko bandaren jaitsiera, Buruhandi eta Erraldoiak, haur jolasak, Udal Musika Bandaren emanaldiak, dantzaldiak, danborrada... Ekitaldiak betetako jaiak antolatu zituen Peña Santa Krutz elkarteak. Hauxe lehen bi egunetako egitarauaren laburpena:

Maiatzak 2, asteartea

19:00 Kanpai errepika.
19:30 Salbea ermitan.
20:00 Buruhandi eta Erraldoiak.
21:30-13:00 Udal Musika Bandarekin dantzaldia.

Maiatzaren 3a, asteazkena

08:00 Musika Bandaren diana.
09:30 Prozesioa San Martin elizatik Santa Krutz ermitara, agintariak lagunduta.
10:00 Meza Santa Krutz ermitan, Abesbatzarekin.

12:00 San Martin Parrokiatik

abiatuta, agintariak herriko bandera alkatearen etxera eramatea, eskopeteroekin batera. Ondoren, alkatearen etxeko balkoian bandaren zabaltzea. Ondoren, eskopeteroen salben jaurtiketa.

Ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua.

13:00 Herri Krosa, Pepsi-Colak babestuta).

15:30 Jose Saenz *Pepe Andoain*-en kontzertua zuzenean Radio San Sebastian irratitik.

17:00 Batelaren txapelketa: San Inazio (Etxeberrieta), Santa Kruz (Zumea), San Pedro (Kaletxiki), San Juan (Bastero).

18:30-21:30 Bandaren emanaldia.
22:00-01:00 Bolero orkestrarekin dantzaldia.



Eskopeteroak (Angel Irigoras kapitainarekin), aingeru txikiak, agintariak eta herritarrak prozesioan Kale Nagusian gora. ANDOAINGO UDAL ARTXIBOA, ©MOISES (1961)



IRITZIA

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Trafikoa, bide-segurtasuna eta eguneroko ohiturak

Bide-segurtasuna argudio nagusitzat hartuta, Andoaingo Udalak kamerak jarri ditu herrigunean. Informazio eta Komunikazio Teknologien gizaratean, kamerak jartzen hasi orduko aztoratu ziren hainbat herritar. Zer dela eta? Zertarako? Nondik nora? Galderak airean. Antzeko fenomenoak gertatu zen Wi-Fi aparailuak jarri zituztenean. Sekuentzia errepikatu egin da, hurrenkera honetan: Tresneria jartzen da, gertaera bolo-bolo zabaltzen da whatsapp eta "andoaindarras y punto" bezalako Facebook orrialdeetan eta ondoren azalpenak ematen dira.

Eta alderantziz probatuko bagenu? Zalapartaren erdia sortuko litzateke, beharbada.

Ibilgailuak eta trafikoa hizpide hartuta, gutako bakoitza erretratatu gera daiteke afera honetan. Eta hori azaltzen saiatuko naiz. Andoaingo udalerriak, trafikoari dagokionez, arazo kronikoak dituelako. Bi, behintzat, aipagarri dira.

TRAFIKOA

N-1 errepidearen eta A-15 autobidearen ondorioz sortzen diren trafiko arazoak. Lasarte-Oriatik Tolosara bidean edo Tolosaldetik Donostiarako noranzkoan istripu edo trafiko arazoren bat egonez gero, Andoain zeharkatzen duen herri barruko errepidea azkar



Herrigunean jarritako kameretako bat, Ama Kandida etorbidean. AIURRI

batean iristen da kolapsora. Karrikan, Kaleberrian, Bazkardo aldean, Leizotz inguruetan eta Sorabilla-Bordaberri aldean efektua berehalakoa da. Ez dago hori geldiaraziko duen kamera edo udaltzaingorik. Bistan da udalerritik harago doan arazoa dela.

Auto gidari batzuren-askoren ohiturak. Herriguneko bizilagun askok ibilgailua hartzeko ohitura dute-dugu goizeko lehen orduan, eguerdian eta arratsaldean. Horren ondorioz trafiko arazoak sortzen dira Agustin Leitza etorbidean, La Salle etorbidean, Kale Nagusiaren hasieran, Kaletxikin, Erroitx kalean, Doktor Huitzi kalean eta Kale Nagusiaren hasieran. Egun euritsuetan Kaleberriraino iristen dira

eskolako sartu-irteerak eragindako trafiko pilaketak.

Kontzientziazio kanpaina handia egiteke gaude. Oinez edo bizikletaz eskolara joan-etorrian doazenek badakite-badakigu, kasu gehienetan, herrigunearen zati handiena 10-15 minututan zeharkatzen dela. Autoan denbora beretsua igaroko genuke, eta egun euritsuetan, denbora tarte hori handitu egiten da. Ibilgailuaren bila joan behar da, udalerria zeharkatu, aparkatzeko tokia bilatu, aparkatu eta eskolako atera gerturatu. Hori guztia egiteko igarotzen den denbora tarte horretan metro asko egin daitezke oinez.

Etorkizun hurbileko aipamen bat: Kontsumoan zer nolako eredurantz goaz? Zertara garamatza udalerrriaren kanpoaldean

hedadura handiko merkatalgunea eraikitzeak? Andoainen, ziur, ibilgailua hartzera. Edozein auzotik Illaramendiko eremu berrira doanak ibilgailua hartuko duelako. Nekez joango da oinez, poltsaz beterik itzultzeko. 2030 helburu duen Europa honetan, ibilgailuaren erabilera areagotu egingo du Illaramendiko egitasmoak.

BIDE-SEGURTASUNA

Heziketan lan handia egiteko dago. Andoaingo alkateak kameraren erabilerak jokabide itsusiak saihesteko baliagarria izango dela adierazi zuen. Eta adibide bezala Txitibarko biribilgunea jarri zuen. Jokabide zatar hori toki gehiagora zabaltzen da, zoritxarrez. Zumea plazan bizi garenontzat ezagunak dira Belabi kalearen ondoan dagoen harrizko aparkaleku handian ero moduan ibili izan diren gidarien ibilerak.

Haur txikiak ditugunok ordu asko ematen ditugu kalean eta guraso asko haserre samar gabilta BMW markako ibilgailu klasiko eta ez hain klasiko batzuren gidatzeko joera arriskutsuarekin. Zumea plazan orduak ematen dituenarentzat ez da adibide ezezaguna. Ezta Olagaindik Olazar aldera oinez doanarentzat edota Goiburu aldean bizi denarentzat ere. Arrisku biziko egoerak sortu

dituzte, maiz. Bizilagun asko gara horrelakoak gure begiekin ikusi ditugunak. Errepikakorra da eta udalerrri osoan gertatzen da. Kamerarik gabe ere jokabide horiek kontrolatu behar ziren, egunen batean istripu larriren bat gertatuko delako. Oraindik ere gogoan dut, hilabete batzuk atzera, guraso batzuk BMW horietako bat gerarazi genuela Goiburun. Haserre bizian jarri ginen, haurrez beteriko eremuan oso jokabide arriskutsua izan zutelako.

Kamerak jartzeko erabakia hartu duten Udaltzaingorekin eta Udal arduradunen argudio gehiagoren faltan geratu naiz. Ondo legoke beste herrietan emaitza onak eman dituela eta funtzionatu duela diotenean, zehaztapen gehiagorekin aritzea. Emaitza onak eman dituela diotenean, zeri deitzen diote emaitza ona? Isunak jartzeari? Oso ondo funtzionatu duela diotenean, zer esan nahi dute? Kameraren presentzia hutsarekin nabarmen murriztu direla gidarien jokabide traketsak?

Argibide gehiago eman behar diren ustekoa naiz, bestela inpresioa dut herritar batek baino gehiagok hasieran zituen galdera berdinak egiten jarraituko duela. Zer dela eta? Zertarako? Nondik nora? Azalpen osagarririk gabe tarte zabala hartzen du zalantzak.



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Umietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Hizkuntza
Berlitasunerako
Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Aiurri.eus, unean uneko albistegia



Egoera epidemiologikoa, egunez egun



Kirol-hitzorduen jarraipena




Unean uneko albisteak



Koronabirusaren gakoak



Bideo-sorta zabala



Kirol-albisteak



Asteburuko ekitaldiak



Euskararen aldeko egitasmoak



Asteburuko kirol-kronikak



Iazko lore eskaintza. AIURRI

Lopez de Lacalle gogoan hartuko du PSE-EEK

Ostegun honetarako omenaldia antolatu dute, baina ez da jendaurrekoa izango

Erredakzioa ANDOAIN

Ostiral honetan, maiatzak 7, Maider Lainez Andoaingo Sozialisten Idazkari Nagusiak lore eskaintza egingo du Jose Luis Lopez de Lacalle izena daraman parkean dagoen monolitoan.

PSE-EEK, ordea, ez dela jendaurreko ekitaldia izango aurreratu du: "Covid-19ren pandemiaren aurrean indarrean dagoen osasun-araudia dela eta, ez zaie herritarrei eta komunikabideei ekitaldi intimo honetan parte hartzeko deia egingo. PSE-EEren ustez, aurrean ere garrantzitsua da Jose Luis Lopez de Lacalle gogoratzea, ETak hil zueneko hogeitabatgarren urteurrenean, gure oroimenaren parte izaten jarraitzen baitu".

Pandemia iritsi aurretik, jendaurreko ekitaldian, Mari Paz Artolazabal Lopez de Lacalleren alargunak eta Maider Lainezek hitz egiteko ohitura zuten. Artolazabalek honakoa adierazi zuen, 2019an: "Guztion artean osatu beharko dugu bizikidetzaren gure herria, eta horretarako, beharrezkoa izango da nork bere azterketa zorrotza egin dezan". Lainezek bide beretsuan hitz egin zuen, orduko hartan: "Jarrai dezagun bizikidetzaren den artean lantzen, baina gertatutakoa gogoratu".

"Mugak aukera gisa ulertzean datza plenipausia"

EDURNE MENDIZABAL PLAX

Maiatzaren 13an "Menopausia-plenipausia: beste ikuspegi bat" tertulia izanen da Andoainen, Plax-en zein Berdintasun Sailaren eskutik

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Emakumearen sexualitatea sakonki zeharkatzen duen aldia da menopausia edo plenipausia. Aldaketa emozionalen bezain fisiologikoen eragile da. Hori ardatz, "Menopausia-plenipausia: beste ikuspegi bat" hitzaldia antolatu du Plax bikote eta sexu aholkularitza-taldeak, Andoaingo Berdintasun Sailarekin elkarlanean. Abagune izan nahi du tertuliak edozein adin-tarterko emakumeentzat; aukera, beldurrez, mugez eta premiez mintzatzeko, askotariko bizipenen topagune izateko. Izan ere, horixe du helburu Plax-ek, andoaindarren sexualitatea herriratzeara. Edurne Mendizabal aholkularitza taldeko kide da. **Menopausia, plenipausia. Bi kontzeptu ezberdin dira, baina aldi berari egiten diote erreferentzia, ezta?**

Bai eta ez. Biek hitz egiten dute emakume batek adin jakin batean (50 urteren bueltan, gutxi gora-behera, nahiz eta aldagarria izan) izaten dituen aldaketa fisikoei buruz, baita emozionalen zein sozialez ere. Plenipausia hitzarekin bizitzako aldi hori testuinguruan kokatu nahi dugu, hots, ikuspegi zabalago batetik eutsi. Azken hamarkadetan, gainera, emakumeen bizitza izugarri medikalizatu da, eta, are gehiago: zenbait adituren esanetan, medikalizazio kasu handiena da historian menopausiarena. Nola, labait, arazo, zailtasun eta galea gisa irudikatzen da. Horren gainean hausnartu nahi dugu, jendearen bizipenak entzun. Izan ere, ematen du derrigor sufritu behar dugula, eta ez du zertan horrela izan. Elkar lagunduta eta nork bere burua zaintzeko lan hori eginez gero, askoz ari-nagoa da prozesua. Garai ederra irekitzen zaio emakumeari aldi horretan, indar eta aniztasun gehiagorekin bizi da, baita eskarmentu handiagoarekin ere.



Edurne Mendizabal, Andoainen duten egoitzan. AIURRI

"EMAKUMEAK ADIN BATETIK AURRERA DESKATALOGATU EGITEN DIRA EROTISMOTIK"

Beraz, aldi hori indargune gisa ulertzea du oinarrian plenipausiak?

Plenipausia hitza osotasunetik, betetasunetik dator. Mugak aukera gisa ulertzean datza plenipausia. Badirudi emakumeak ez garela emakume harik eta hilekoa izan arte; ondoren, zikinak eta zatakrak gara, eta ziklo hori bukatzean ere gaizki, ez garela emankorrak. Oso lotuta dago besteentzat izateko ideiarekin, familiarekin, edertasun eredu jakin batekin. Horri guztiari buelta emanez gero, batzuentzat liberazio-aldia izan liteke, bakea, gozamenerako aukera. Onarpena eskatzen duen una da, noski baietz, adin-tarte orok baititu onartu beharrek haibat kontu.

Emakumearen bizi-zikloaren parte da menopausia.

Bai, erabat, eta zukua ateratzeko momentua izan liteke. Nola-

nahi ere, interneten "menopausia" hitza bilatuz gero, guztia da medikamentu, guztia, sufri-mendu. Hori al da gaur egungo 50 urteko andrazko baten bizitza? Aukera pila ditu aldi horretan emakumeak, baita urte asko aurretik bizitzeko ere.

Erotismoarekin eragin zuzena duen aldia al da?

Bai, badirudi menopausia duzenean ez duzula ez desirarik eta ez zarela desiragarri. Guztia sufrimendutik bideratzen da. Ideia horiei buelta bat ematea beharrezkoa da, geure erotismoa berreraikitzeke.

Emakumearen gorputzaren fisiologiari eragiten al dio?

Horren harria, hasieratik argituko dut tertulian hitzordua ez dela jorratuko medikuntzaren ikuspegitik, sexologiatik zein feminismotik baizik. Emakume bakoitza mundu bat da, eta inoiz ez dira bi prozesu berdin bizitzen. Hala ere, oro har, hainbat aldaketa eman litezke gorputzean, besteak beste, hormonon jarioak behe-eragin lezake, sofokoak ager litezke, bagina lehortu, baita atrofia muskularra eman ere; horrek sarketetan mina eragin

lezake. Azken horren bidetik, aukera polita da gai horretaz hausnartzeko eta plazera sentitzeko beste hamaika bide deskubritzeko, eredu koitozen-tristatik zein genitalizatutik harago. Emakumeak adin batetik aurrera deskatalogatu egiten dira erotismotik. Beraz, aukera polita da gutaz espero dena pentsatzea baino gehiago, zein desira ditugun ezagutzeko. Gaia indibidualki zein kolektiboki lantzean oinarrituko da tertulia: onarpenetik, umoretik, tratatu onetik... Horregatik da interesgarria bertaratzen den jendearen parte-hartzea.

Aipatu duzu esperientzia aldakorra dela, alegia, nork bere erara bizitzen duela aldia.

Inportantea da konturatzea zein aldarterekin erreparatzen zaion gaiari eta, ondorioz, nola zaintzen garen, zenbat barre egiten dugun geure buruaz... Horrek guztiak prozesua arintzen du. Tertulia abiapuntu izan liteke. Hari horri tiraka, inork jarraipen zehatza nahiko balu, gure sexologia-zerbitzura jo lezake, arreta pertsonalizatua egiteko.

Horrelako tertulietan konplizitatea sortzen al da, nahiz eta, oro har, esperientziak partekatzeko joera ez egon?

Normalean bai. Nahi duenak nahi duenetik kontatzen du: lasaitasuna, patxada, epairik eza, onarpena. Horixe da hasieratik jartzen dena mahai gainean, hor esaten dena hor gelditzen da. Gehienetan, zailena izaten da isiltasuna aurkitzea, hitz egiteko behar handia baitago. Entzutera bakarrik doana ere entzutera bakarrik doa, ez da ezer pasatzen. Niretzat entzule izatea parte hartzeko modua da.

Zergatik dute garrantzia horrelako saioek?

Beti dugu bizitzako hainbat garaietan eta esparrutan aurrera egiteko premia. Gainera, emakumeon esparrua eta, bereziki, sexualitatearena, ikustezina da ia. Eta hortik sortzen dira arazoak. Horrenbestez, garrantzitsua da isilpeko horiei argia ematea, makina bat pertsonari eragiten dion prozesua baita.



Maiatzaren 14an eta 15ean informazio karpak jarriko dituzte herrigunean. Parte hartzeko modu ugari eskaini dituzte. AIURRI

Parte-hartze prozesu bikoitza, maiatzean

Herriko zein plaza edo parke estaltzeko parte-hartze prozesua abiatzear da Urnietan. Era berean, Udal aurrekontuko 150.000 euroko partida zertan gastatu erabakitzeko bigarren prozesua martxan jarriko da

Erredakzioa URNIETA

Asteazken goizean xehetasunak eskaini zituen Urnietako Udalak. Goizean, hedabideen aurrean. Eta, arratsaldean, herritarren aurrean. Egun hauetan urnietarrek etxean jasoko dute parte hartze prozesuari dagokion liburuxka, eta baita prozesuan parte hartzeko eskuorriak ere.

Parkeak

Andoainen eta beste udalerri batzuetan egin duten bezalaxe, udalerriko zein parke estaltzeko herritarren iritzia jaso nahi du Urnietako Udalak. Esperientziak erakusten duenez, haur gehien elkartzaren diren plaza edo gunek izan ohi dira bozka gehien jasotzen duten proposamenak. Urnietan berritzailea den prozesu honen baitan herritarrek zein parke estali nahi duten erabakitzeko aukera izango dute. Eta horrez gain, Udalak erantsi duenez, aukeratutako eremua nola estali erabakitzeko aukera izango dute.

Udalak hainbat gune identifikatu ditu. Hauexek: Yurramendi parkea, Etxeberri parkea, Jakutegi plaza, Azkorte parkea, Burdinbide parkea eta San Juan iturri plaza.

Aukeraketa gauzatzeko hiru fase diseinatu dituzte:

1. Zein plaza edo parke estaltzeko bozketa abiatuko du.
2. Parkea nola estali erabakitzeko ideien lehiaketa jarriko da martxan.
3. Hiru aukera ezberdinen artean bozkatu beharko dute herritarrek.

Aurrekontu parte hartzaileak

Udalak aurreko urteetako bidean sakonduko du, eta berriro ere Udal aurrekontuko 150.000 eu-

16 URTETIK GORAKO URNIETARREK HAR DEZAKETE PARTE UDALAK SUSTATU DUEN EGITASMOAN

roko inbertsioa erabakitzeko herritarrengana joko du. Egitasmoak bi fase izango ditu.

1. Herritarrek proposamenak aurkeztuko dituzte.
 2. Udaleko teknikariek jasotako proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertuko dute.
- Aurreko urteetan adierazi bezala, proposamenak aurkeztzeko garaian baldintza batzuk bete behar dira:

- Udal-eskumenekoak: Obrak, hirigintza eta mantentze-lanak.
 - Bideragarriak: Proposamenak gauzatzeko gehienezko kopurua 50.000 eurokoa izango da.
 - Iraunkortasuna: Ekonomikoa eta finantzarioa bermatuko da.
 - Guztientzat: Interes orokorrekoa izatea lehenetsiko da.
 - Orekatua: Udalerriko auzoen arteko oreka bermatuko da.
- Maiatzaren 14an eta 15ean informazio karpak jarriko dituzte herrigunean. Parte hartzeko modu ugari eskaini dituzte.


Bidaiteka lehiaketa finalera iritsi da

Ane Otaegi Begiristain, Maider Iriberry Mugica eta Imanol Fernandez Diez hiruetako batek irabaziko du

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Gazte Informazio Puntuak lehiaketa jarri zuen martxan. Lehiaketa honen bidez, gazteek azken urteotan bizi izan dituzten esperientzia interesgarrien berri emateko aukera dute, baita sari interesgarriak irabazteko ere. Instagram bidez egin da lehiaketa, eta 60 segunduko bideoa aurkeztu dutenen artean hiru hautagai pasa dira finalera.

Azken fasean lehiatzeko hautatuak izan diren pertsonak, bidaiaren informazio zabalagoa emanez gehienez, 5 minutuko iraupena duen bideo bat prestatu dute. Ikusleen babesa eta epaimahaiaren iritzia erabakiorra izango da irabazlea aukeratzeko garaian. Sariak ez dira nolanahikoak. Irabazleak 300 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 200 eta hirugarrenak 100.



Ane Otaegiren bideoaren pasartea. AOB

@gazteinfournieta instagram kontuan eman daiteke botoa, maiatzaren 7ko eguerdiko 12:00ak arte. Finalistak Ane Otaegi (@ane_otaegii), Maider Iriberry (@maider_iri) eta Imanol Fernandez (@imi_pk) dira.

Emaginari eskertza

Agur esan dio gaur Jeru Rodriguez emaginak, hamarkada luzez, bere ogibidea izan denari, emagintzari. Urnietako anbulategiko atarian amaitu zuen bere ibilbidea, apirilaren 27an. Eta agurrean bidelagun izan zituen lankideak eta herrikide ugari.

Despedidaren bideoa Aiurri.eus gunean ikusgai dago, bideoen atalean.



AIURRI

Mulisko gainera irteera

Urnietako AEK-k eta Zanpatuz mendi taldeak irteera antolatu dute Mulisko gaineko megalitoetara. Datorren maiatzaren 14an izango da, arratsaldeko 17:00tan hasita. Jarduera irekia da eta edonork parte hartu dezake, baina ezinbestekoa da izena ematea.

- 662 33 87 47
- urnieta@ae.eus




WIKIMEDIA



IREKIA

Ospitaleratzeak

Laugarren olatua jaisten ari den datuak argiak badira ere, horrek ez du berehalako eragina izaten ospitaleratzeetan. Gaurkoz, zainketa berezien unitatean berrehun lagunetik gertuago daude. Eta hori oso kopuru handia da. Ospitaleetan, denera, bostehundik gora. Osasun sistema kolapsotik urruntzea litzateke albisterik onena.




IREKIA

Oinarritzko birsorkuntza tasa

Apirilean zehar oinarritzko birsorkuntza tasa oso handia izan da, gomendagarria den 1aren oso gainetik. Gipuzkoan bereziki, eta hori oso lotuta dago metatu den positibo kopuru handiari. Azken astean jaitsiz joan da, eta joera txarra onbideratzen ari dela esan daiteke. Grafikoan argi samar ageri da joera aldaketa.

Olatuak goia jo du

Olatua sortu eta lehertu azkar samar egiten zen pandemiaren aurreko olatuetan. Laugarren deitzen dioten honetan olatua lehertzeako denbora gehiago behar izan da. Mailakatuagoa izan da igoera, eta era berean jaitsiera ere modu beretsuan gertatuko dela dirudi. Intzidentzia-tasa oraindik oso handia baita Euskadi osoan. Egunez egun jaisten joango da.



IREKIA



Gabiriko kaxkoa oso zainduta dago. Ingurune ederrean kokatuta dago. AIURRI

Mugikortasuna berreskuratu du Andoaingo udalerriak

Urnietako egoera epidemiologikoa hobetuz doa, Gipuzkoa osoan bezalaxe

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoan barrena ibiltzeko aukera izango dute andoaindarrak, eremu gorritik irten baitzen astelehenean. Asteburuan aisialdiari eskaintzeko aukera gehiago dagoenez, honako hauxe da mugikortasuna baimenduta duten udalerrien zerrenda: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altxaga, Altzo, Amezketta, Andoain, Arama, Baliarrain, Beasain, Beizama, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Eibar, Elduain, Elgeta, Elgoibar, Errezil, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Hernialde, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larrraul, Lea-buru, Legorreta, Leintz-Gatzaga, Lizartza, Mendaro, Mutiloa, Mutriku, Olaberria, Orendain, Oresa, Ormaiztegi, Segura, Soraluze, Zegama, Zerain. Gipuzkoan barrena turismoa egiteko aukera aipatzen da.

Neurri berrien zain

Espainiako Gobernuak ezarritako Alarma egoera igandean bertan behera geratuko dela ikusita, Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurri berriak zeintzuk izango diren ezagutzeko jakinmina dago. Orain arte adierazitakoaren arabera, Jaurlaritzak ontzat eman ditu mugikortasunari eta ostalaritzari buruz hartutako neurriak. Proposamen berria bide beretik joanez gero, Andoainen eta Urnietan mugikortasuna ziurtatzeko zein aukera egongo litzateke? Araudi berria egungotik ez bada gehiegi aldatzen, astelehenean igandera Urnietan 14 positibo batuz gero, 400eko intzidentzian geratuko litzateke. Eremu gorrian, beraz.

Andoaingo kasuan, astelehenean igandera 40 positibo batuz gero, 400eko intzidentzia-tasa gaitutuko luke.

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Apirilak 28-Maiatzak 4:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 326,93.
- **Apirilak 21-27:** 27 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 433,68.
- **Apirilak 14-20:** 38 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 340,27.
- **Martxoak 24-30:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 233,52.
- **Martxoak 17-23:** 14 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 186,82.

URNIETA

- **Apirilak 28-Maiatzak 4:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Apirilak 21-27:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 595,91.
- **Apirilak 14-20:** 19 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Martxoak 24-30:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 17-23:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

w w w . a i u r r i . e u s



Irati Zinkunegi eta Amaia Mellado. AIURRI

“Inoiz baino gehiago animatzen dugu elkar”

IRATI ZINKUNEGI ETA AMAIA MELLADO UKE ESKUBALOIA

Arrarotasunetik asko du azken urteak, gehiegi, askoren nahierako. Ezohiko hilabeteak izan dira, baita kirolarientzat ere

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Entrenamenduen antolaketa mugatua, partiden atzerapena, publikorik gabeko harmailak... Itxuraz, hasiera batean, denboraldi oparoa ez bazen ere, erronkari eutsi zioten, besteak beste, Urnieta Kirol Elkarteko eskubaloiko jokalariek: senior taldeko kide da Irati Zinkunegi, eta jubenil-mailan lehiatzen da Amaia Mellado.

Aurtengo denboraldiaren azken txanpan zaudete. Zer moduzkoa izan da?

Irati Zinkunegi: Seniorretan, berriki amaitu dugu liga. Orain, astebeteko atsedenaldiaren ondoren, igoera-fasea dugu jokoan. Hiru asteburuko iraupena izango du horrek: gure taldean, gurekin batera igo da Ereintza

hurrengo fasera. Beste taldean, berriz, Zumaia eta Eibar. Beraz, liga laburra jokatuko dugu eta irabazlea Euskal Ligara igoko da.

Amaia Mellado: Jende dezente utzi zuen ikasturte hasieran uste zuelako aurtengo denboraldian ez zela partidak jokatzetik egongo. Aurten, ez dugu oso emaitza onik lortu. Ez ginen Gipuzkoako Txapelketarako klasifikatu eta, beraz, beste liga batean gaude orain, ahalik eta postu onena lortzeko ahaleginean.

I. Z.: Bai jubenilak, bai gu Gipuzkoan aritzen gara; beraz, ez gara profesionalak. Hasiera-hasieran, lau taldeetan eta musukoak ipinita bildu behar ginen. Gure herria eremu gorrian sartuz gero, bertan behera gel-

ditzen ziren entrenamenduak, baita partidak ere. Beraz, liga izugarri atzeratu zen. Orain, aldiz, posible dugu hori guztia egitea, nahiz eta eremu gorrian izan Urnieta.

Seniorrek igoera duzue jokoan, Irati; eragina izan al du koronabirusak, ligaren antolaketari dagokionez?

I. Z.: Lehengo urtera arte, Gipuzkoako talde guztiak liga bakarrean ginen, eta, aurten, ostera, gertutasun geografikoaren arabera, bi taldeetan banatu da txapelketa. Batetik, Eibar, Elgoibar, Zumaia eta Ordizi. Bestetik, Orereta, Egia, Lezo, Irun, Tolosa eta gu geu. Ohiko egoeran, Bizkaia taldeekin lehiatuko ginateke igoera-fasean, baina aurten nork berea egingo du.

Ez da denboraldi erraza izan, egoera epidemiologikoa medio. Zein egoeratan harrapatu zuen taldea itxialdiak?

I. Z.: Inork gutxi aurreikusi zuen liga bertan behera geratzea. Azken partida besterik ez zen gelditzen, hain zuzen ere, lehen postuan zegoen taldearen aurka lehiatzekoak ginen. Pandemiak moztu zigun ligako une onena, azken partida eta igoera. Nik uste dut horrek jendea motibatutako duela denboraldi honetan ere egoteko. Bigarren gelditu ginen eta igoera-fasea jokatu behar genuen, baina ezin izan zen egin; hori horrela, automatikoki, lehen postuan gelditutako taldea igo zen.

A.M.: Gipuzkoako Txapelketa irabaztea lortu genuen. Hala, igoera-fasea asteburu batean jokatu genuen hiru partidetara. Euskal Ligara igo ginen, azken orduko garaipena eskuratu ostean. Hiruzpalau partida jokatu eta pandemia etorri zen; eten egin zigun. Hala ere, ez ginen emaitza onak lortzen ari, eta Urnietako kadeteek ere Euskal Ligan behar zuten gu goian mantentzeko. Maila-aldeketa izugarri nabari zen: guztia irabaztekin dena galtzera igaro ginen. Baina asko ikasi genuen, dibertigarria izan zen.

I. Z.: Izugarritzko marka izan zen jubenilen igoera.

Eta hilabete luzeko geldialdiaren ondoren bueltatu zineten entrenamenduak egitera. Oroitzen al duzue nolakoa izan zen itzulera?

A.M.: Itxialdiaren ondoren, gogo handiz ginen entrenatzen has-teko. Denboraldi honetan, entrenamenduak egiteari aurre-denboraldian ekin genion, hots, abuztuaren amaiera aldean.

I. Z.: Aurreko urteetan astean lau entrenamendu-egun izaten genituen; aurten, berriz, lasaigoa izan da. Ezjakintasun handia zegoen, ez genekien jokatze-ko aukerarik egongo ote zen ala ez. Baina jendea gogotsu zegoen; entrenatze hutsarekin konformatzen ginen. Egoera horretan entrenatzea biziki eskertzen genuen, denbora luzez galarazi digutelako.

A.M.: Lagunartekoa jokatze-koak ginen, gainera; baina beste taldeko kide batek positibo eman eta bertan behera gelditu behar izan zen.

I. Z.: Beste hainbat ekipotan jende-kopuruak behera egin du; gurean, aldiz, motibazio handia

egon da hasieratik, asko inplikatu gara jokalariek.

Konfinamenduek asko baldintzatu al du zuen jarduna?

A.M.: Egon dira kasuak, asteburuko zenbait partida bertan behera gelditu izan dira, azken orduan norbaitek positibo eman duelako. Gerora, berreskuratu dira horiek, alegia, atzeratu egin dira partidak. Ondorioz, asteburu bakarrean bi partida ere jokatu izan ditugu.

Nekea eragiten al du horrek?

I. Z.: Geuri ere tokatu zaigu asteburu bakarrean partida bat baino gehiago jokatu behar izatea. Tolosaren aurka, esate baterako, nekatuta ginela nabaria zen, bezperako norgehiagoka zela-eta.

Baldintzatu al dituzte entrenamenduak egoerari aurre egiteko neurriek?

A.M.: Hasieran nekagarriagoa zen, zeren musukoa erabili behar baitzen, baita guztia desinfektatu ere. Orain, partida baino lehen, derrigorrezkoa da tenperatura hartzea. Hala ere, ez dugu musukoa jantzi behar.

I. Z.: Entrenatu, musukoarekin entrenatzen genuen lehen eta, ondoren, partidetan gabe aritzen ginen. Arraroa zen hori. Dutzak ere ez zeuden, eta ez da batere erosoaren entrenamendutik zuzenean etxera dutxatu gabe joatea. Lehen, gainera, talde txikitan entrenatu behar genuen, eta mugatu egiten du horrek. Zentzugabea zen, ezin zelako behar bezala entrenatu.

Hutsik daude harmailak partiduetan...

A.M.: Babes handia ematen digu publikoak, eta nabari da hutsu-nea.

I. Z.: Gainera, gure kasuan, igoera-fasean egonda, tristetzen gaitu. Balabide gehiago dituzten taldeek, adibidez, *streaming* bidez emititzen dituzte partidak. Gurean, oraindik, ez dugu lortu aukera hori. Dena dela, inoiz baino gehiago animatzen dugu elkar.

Hasiera zaila izan bada ere, nolakoa irudikatzen duzue denboraldi-amaiera?

A.M.: Orain gauden ligan ahalik eta postu onena eskuratzea dugu xede, baita senior taldekoei igoera-fasean ahal bezainbeste laguntzea ere.

I. Z.: Ilusio handiz dago gure taldea. Ekipo sendoa gara. Gainera, helburu argia bezain egin-gargarria dugu: igoera.



Kirol jardueren aurkezpen ekitaldia aurreko astean egin zuten. AIURRI

Kirola eta aisialdia uztartzeko egitasmoak, uda honetan

KIROLA ETA AISIALDIA Andoaingo Udalak ekimen sorta aurkeztu du, haurren eta nerabeen aisialdia osatu asmoz

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko sail ezberdinek haur eta nerabeei bideratutako ekimenak iragarri dituzte, iristear den udarako. COVID-19ari aurre egiteko osasun neurri guztiak bermatuko dira ekimen horietan guztietan, eta horrexegatik taldeak txikiagoak izango dira. Aire zabalean egingo dira ahalik eta jarduera gehienak.

Udalak herrigune osoan banatu du eskuorria, xehetasun guztiekin. Iazko eskaintza nabarmen handituko dute.

Kirol Jarduerak:

- Igeriketa: 2009 eta 2017 artean jaiotakoak.
- Goizean kirolean: 2009 eta 2013 artean jaiotakoak.
- Tenisa: 2005 eta 2013 artean jaiotakoak.
- Bizikleta+kirola: 2005 eta 2008 urteen artean jaiotakoak.

Goazen Jolastera:

- 2013 eta 2018 bitartekoentzat.
- Ekainak 28tik uztaila 30era bitarte. 09:00etatik eguerdiko 13:00tara, bi txandatan.
- Guztira 288 haur. 6 haurrez osatutako 24 talde ezberdinetan. Prezioak: 77 euro (lehenbiziko txandak); 47 euro (bigarren txandak).

Leitzaran Abentura:

- 2007 eta 2010 bitartekoentzat.
- Lehenengo txanda uztailaren 5tik uztailaren 16ra. Bigarren txanda uztailaren 20tik 30era.
- 24 nerabe txanda bakoitzean.
- Prezioa: 77 euro.

ANDOAINGO UDALAK ESKAINTZA OSOA BILTZEN DUEN ESKUORRIA BANATU DU HERRIGUNE OSOAN



Andoaingo taldea. AIURRI

Finalaurrekoaren bila aterako da Andoain, Herriartekoan

PALA Iradi-Ponce eta Altuna-Rekalde bikoteek debarren gainetik daudela erakutsi dute

Erredakzioa ANDOAIN

Iradi-Ponce eta Altuna-Rekalde bikoteak debarren gainetik igaro ziren, bi partida on jokatu; 35-25 eta 40-32 hurrenez hurren. Maiatzaren 9an itzulerako partidak jokatu beharko dituzte, finalaurrekora sailkatzeko bidean. Igande honetan izango da Arrate pilotalekuan, 10:00etan hasita.

Ibai Iradik eta Koldo Poncek garaipen garrantzitsua eskuratu zuten, larruzko paletan (35-25). Lehen hamar tantoetan norgehiagoka oso orekatua izan zen, baina andoaindarrak maila handiagoa erakusten ari ziren; Poncek sakez min handia egin zuen eta Iradik defentsa sendoa erakutsi zuen. Horrela, 10 tanto aldea lortu eta aurkariak menderatu zituzten.

Pala motzean, berriz, hasiera kaskarra eduki zuten andoaindarrak; batez ere, Altuna partidaren lehen tantoetan desagertua egon zen. Partidaren azken txanpan Altunak teknikoki jauzi egin zuen, eta maila izugarria erakutsi zuen, aurkariak guztiz menperatuz. 22-30eko markagailua edukitzetik, 17 tanto partziala egin eta garaipena eskuratu zuten (40-32).

Ordezko pilotari gisa, Xabier Alkorta sorabillarra aritu zen.



Jokin Lizeaga podiumean, taldekako sailkapenean nagusitu baitziren. AIURRI

Jokin Lizeagaren itzulera, Espainiako txapelketan

MENDI LASTERKETAK Euskal Selektzioa emakumezkoetan eta gizonezkoetan nagusitu zen. Lizeaga 7. sailkatu zen


Erredakzioa URNIETA

Hiru urteko kalbarioa igaro eta herritarren aurrean ondo dagoela erakutsi ondoren, lehen proba ofizialean parte hatu zuen urnietarrak. Jaen probintziako Torres udalerrian ospatu zen Espainiako mendi lasterketan izan zen, eta aurrealdean iritsi zen. Meritu handiko postua egin zuen, seigarren helmugaratu baitzen. 28 kilometroko lasterketa izan zen, 2.300 metroko desnibelarekin.

Sailkapena:

1. 02:34:19 Merillas, Manuel.
2. 02:36:11 Margarit Sole.
3. 02:36:33 Egea, Aritz.
4. 02:39:57 Malek, Zaid Ait.
5. 02:41:11 Larruzea, Asier.
6. 02:43:05 Lizeaga, Jokin.

Lasterketaren amaieran bidalitako bideoan azaldu zuenez, pozarren zegoen. Eta herriki-deekin, berriro ere, eskertuta:



Jokin Lizeaga helmugara iritsi zen unea. CARRERASPORTMONTANA

"Bukatu dugu, minik hartu gabe. Kuadripzesatik justu ibili naiz azken jaitsieran, baina ondo. Orkatilak, belaunak... ez dugu ezer hautsi, eta primeran. Eskerrik asko orain arte animoak eman dizkidazuenoi".



andoaINDARRA
euskaraz



Urnietako
udala



Txapelketa bikaina osatzen ari da Ansa urnietarra. AIURRI

Txapelketa bikaina jokatzeko ari da Ansa-Labaka bikotea

ERREMONTEA Ansak eta Labakak hirugarren garaipena lortu dute Segurola-Larrañaga bikotearen aurka

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardoaren txapelketan Setien sagardotegiaren izenean lehian ari den bikoteak (Ansa II - Labaka) Gaztañaga sagardotegia gainditu zuen (Segurola - Larrañaga). Azken emaitzari begira, irabazteko aukerak bi bikoteen esku izan ziren (30-28).

Emaitza honekin Ansak eta Labakak lidergotza sendotu dute eta hamabi punturekin finalerdietara sailkatu direla esan daiteke. Partidarik galdu ez duen bikote bakarra da; txapelketa benetan biribila jokatzeko ari da urnietarra.

Jaialdiko bigarren partidari Urriza eta Zalduak (Bereziartua), aurreko asteko arantza atera, eta 14an utzi zuten Goikoetxea eta Aizpuru bikotea (Gurutza). Azken hauek galtzen zuten lehen partida izan zen. Bi bikoteek bina partida irabazi dituzte.

Maiatzaren 10eko partidak, ETB1n zuzenean (22:15)

- Urriza Zaldua / Juanenea - Zubiri.
- Ansa II - Labaka / Etxarri - Barrenetxea IV.
- Goikoetxea V - Aizpuru III / Segurola Larrañaga.



UKE

Mailari eusteko lehian

ESKUBALOIA Urnieta Artola Harategia mailari eusteko lanean ari da. Senior mailako taldea bigarren kanporaketa jokatzeko ari da, Euskadiko Txapelketan jarraitu ahal izateko. Ezin izan zuen garaipena eskuratu Arrasateko Mugarriren aurka (35-27). Bueltako partidari zortzi goleko alde gainditu beharko dute.



Mikel Iturria. EUSKADI

Mikel Iturria Asturiasko Itzulian lehen postuetan

TXIRRINDULARITZA Hiru etapaz osaturiko Itzulian, 15. postuan amaitu zuen urnietarrak

Erredakzioa URNIETA

Katalunian, Euskal Herrian eta Valentzian aritu ostean, Mikel Iturriak emaitza ona eskuratu du Asturias aldeko errepideetan. Lehen postuetan helmugaratu zen bigarren eta hirugarren etapatan, eta horri esker sailkapen orokorrean 15. postuan amaitu du. Euskaltel Euskadi taldeko onena izan da. Andaluziako Itzulian parte hartuko du talde laranjak. Ikustear dago Iturria bertan izango den, edo ez.

Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadeteak

Errespalditzan lasterketa izan zuten kadete mailako mutilek, apirilaren 25ean.

Sailkapena:

1. Jokin Askaray (Caja Rural).
2. Unax Errasti (Bolintxo).
3. Gorka Fernandez (Dinuy).
16. Iker Ugartemendia (Andoain).
28. Markel Etxarri (Andoain).
38. Ganix Ormazabal (Andoain).

Neskak

Beasainen aritu ziren.

Sailkapena:

1. Daniela Grañana (Hyundai).
2. Alejandra Puente (Hyundai).
3. Izaro Oliveira (S.Bilbao).
30. Izaro Zuriarrain (Andoaingo).
38. Intza Navarro (Andoaingo).



ZUMEATARRA

Zumeatarra Kirol Taldea

TRIATLOIA Minifitri Half Triathlon Peñíscola lehiaketan parte hartu zuen Zumeatarrak, apirileko azken asteburuan. Ur hotzetan igeriketa saioa egin zuten, eta bizikleta saio eurpean. Helmugan hauexek denborak: Eñaut Galarra (Postua: 177. 5:02:55); Garikoitz Arregi (Postua: 261. 5:14:14).



LEIZARAN

Sprint distantziako duatloia

DUATLOIA Euskal Herriko sprint distantziako duatloi txapelketarekin denboraldiari hasiera eman zioten Oñatin, apirilaren amaieran. Pandemia garaian, aurtengo txapelketa erlojupeko formatuan izan zen. Zumeatarrak Nagore Arizagak, Ibai Guzmanek eta Iñigo Duarte partehartu zuten.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN
GIPUZKOA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 6

ANDOAIN Matrikulazioa

Haurrentzat eta helduentzat eskaintza zabala du Udal Musika Eskolak. Internet bidez edo Basteron bertan eman daiteke izena.

Azken eguna: Maiatzak 14.

URNIETA Deialdia

Frontoiko taberna-jatetxea alokatzeko eskaintzak aurkezteko epea ireki da. Kontratuak 10 urteko iraupena izango du, luzatzeko aukerarik gabe. Informazio gehiago: 943 00 80 00.

Azken eguna: Maiatzak 19.

OSTIRALA 7

ANDOAIN Dantza

"Codice", break dance ikuskizuna. Hitzik gabeko 5 gorputz, erreflexiora gonbidatzen duten 5 diskurtso. **19:00, Bastero.**

ANDOAIN Erakusketa

Espazio kuttunak, lau artisten eskutik: Iker Valle, Oaia Peruarena, Patxi Laskarai, Gonzalo Etxebarria. **Maiatzak 7-Ekainak 5.**

IGANDEA 9

ANDOAIN Elkarretaratzea

"Tirolinan ez, sorginek erratz gainean egiten dute hegan" izenburupean, Unanibiko tirolinaren eta via ferrataren aurkako elkarretaratzea. 'Unanibiko lagunak'ek deituta. **13:00, Goikoplaza.**

OSTEGUNA 13

ANDOAIN Hitzaldia

"Plenipausia-menopausia. Beste begirada bat", Arremanitz erakundearen eskutik tertulia feminista. **18:30, Bastero.**

OSTIRALA 14

URNIETA Parte-hartze prozesua

Udal aurrekontu parte hartzaileak azaltzeko karpa jarriko du Udalak. **10:00-14:30, Etxeberri plaza.**
17:00-20:00, Guria ondoan.



Larunbat honetan izango da ekimena. SARE

ANDOAIN, URNIETA Euskal Herriko tontorren igoera

Etixerat eta Sare ekimenek "Izan Bidea" egitasmoaren baitan, presoen aldeko ekimena antolatu dute. Urriar egitekoa zena, udaberrira atzeratu zuten. Larunbat honetan euskal presoak herriratzea eskatuko dute.

Urnieta: 09:30, Besabi. 12:00, argazkia Onddin.

Andoain: 08:00, Bekoplaza. Mendiak: Onddo, Zaburu eta Aizkorriko.

Andoain: 10:00, Bekoplazatik Goiburura igoera.

Maiatzak 8, larunbata.

TXALAPARTA

MASTER CLASS

- ERITMO DESBERDINEN SAKONKETA -


MAIATZAK 22 - LARUNBATA - 10:30

Maizorri Txalaparta Eskola (Olagain)

10€

IZEN-EMATEAK:
 maizorri@gmail.com edo 677 153 422
 Izen-emateko azken eguna maiatzak 17

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


Una joven prometedora

Lar., 8. 19:00.
Ig., 9. 19:00.
Astel., 10. 19:00.
Ikuslearen eguna

Upss! Y ahora donde está Noe
Lar., 8. Ig., 9. 16:30.

liargi guztiak

Lar., 15. 19:00.
Ig., 16. 19:00.
Astel., 17. 19:00.
Ikuslearen eguna



SINOPSISIA



Una joven prometedora


Zuzendaria, gidoilaria: Emerald Fennell. **Aktoreak:** Carey Mulligan, Bo Burnham, Alison Brie, Connie Britton, Adam Brody. **Herrialdea:** Britainia Handia (2020). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 113 min.

Mendekua

Cassie protagonistaren ibilerak nagusitzen dira nazioartean sona handia hartu duen filman. Oscar saria jaso du berriki, gidoi onenari eman diotena. Protagonistak etorkizun oparoa

zuen aurretik, gertaera batek bere ibilbidea errotik moztu zuen arte. Bizimodu bikoitza darama, eta iraganeko hainbatekin mendekuz jokatzera erabaki du.

SINOPSISIA



¡Upsss 2! ¿Y ahora donde está Noe?

Zuzendariak: Toby Genkel, Sean McCormack. **Herrialdea:** Alemania. **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 81 minutu. **Musika:** Craig Stuart, Eimear Noone.

¡Upsss 2! zinema haurrentzat

Bigarren zatia lehenak izan duen arrakastaren ondorio izaten da, beti. Oraingoan Nestrian Finny

protagonista eta Leah laguna oharkabeen Noeren ontzira erori eta itsasoan murgilko dira.



IRITZIA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

Oroitzapen kolektibo baten jostun

Mexikon, Txiapasen ginen lagunak orain hiru urteko abenduan. Goizeko lauretan esnatu ginen, gintuen Berri Txarrak taldeak: salgai ziren jada azaroaren 23rako, azken kontzerturako sarrerak. Ahaleginak ahalegin, kale egin zigun zorteak. Eta esku hutsik lokartu ginen arren, azkenean, nola edo hala, jotoke aukera izan genuen. Navarra Arenan elkartu ginen azaroaren 22an eta 23an makina bat zale, hirukoteak azkenekoz esateko zituztenak entzuteko prest. Bederatzi hilabete frenetikoren ostean, azken geldialdia egin zuten etxean, non bestela.

Jende askoren emozioei hitza jarri die Berri Txarrak taldeak. Eta inor bidelagun izan badute 25 urteko bidaian, mikrofonoaren beste aldeko zaleak izan dira horiek. Beraz, jarraitzaileei gorazarre egin asmoz, orain pare bat hilabete, "Dardara" dokumentala kaleratu zuten, Marina Lameioren gidaritzapean. Iragan igandean egon zen ikusgai Urnietan, Saroben. Izan zitekeen mende laurdeneko sentipenen bildumaren kontaketa, baina hirukoteak nahiago izan du urte horietan guztietan zaleengan utzitako arrastoaren erretratu sakona egin.

Berri Txarrak taldearen jarraitzaileen hitzek osatzen dute dokumentalaren bizkarrezurra, baina hirukotearen melodiekin dardarka ipini den edonork egin litzazke bere protagonisten hitzak. Eta Gorka Urbizu da dokumentalean lekukotza horien ehule, oroitzapen

kolektibo baten jostun, Alemaniako haize hotz lehorretik hasi eta Mexiko Hiriko hezetasunera bitarte.

Nola agurtu azken aldiz ia belaunaldi oso baten lelo bihurtu diren abestien letrak, akordeak? Amaierara iritsi—edo beste hasiera bati ekin—aurreko azken pausoaren kontaketa da 'Dardara'; Gorka Urbizuren hitzetan, "haria eten aurretik ihes egiten duenaren nolabaiteko beldurra" kontatzen dira, alegia, "intimotik kolektiboraino doazen argiztalak". Berri Txarrak taldearen kontzertu orok lez, biharamun emozional ederra uzten du dokumentalak, gaurik eroenaren osteko aje gozoenaren parekoa. Hirukoteari zaila egingo zaio oraindik ere esplikatzeko guztia eman ondoren geratzen den sentimendu hori. Kantu askok ireki dizkigute zauriak, baina beti gitarra astintzen, mezuak zabaltzen, harro daudenak apaltzen eta ilusioak eraberritzen; zuek bai zuek jainko ateoak! Eta jakin, jakin badakigu isildu bazarete ez dela hitzik ez duzelako. Horrenbestez, nahi duzuenera arte, hirukote! Bien bitartean, jarraituko dugu "beste bat, beste bat, beste bat...", beharbada, sekula berriro ere biziko ez dugun beste kontzertu baten zain. *Carpe noctem!*

NAHI DUZUENERA ARTE! BITARTEAN, JARRAITUKO DUGU "BESTE BAT, BESTE BAT, BESTE BAT..."

Andoaingo Udal Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago

4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerrak eskaintzen dituzte, baita helduentzako ikastaroak ere

Erredakzioa URNIETA

Basterotik zabaldu duten oharren arabera, "jolasa eta dibertsioaren bidez musikarekiko zaletasuna pizteko lehen aukera dute haurrek: erritmoko-jolasak, dantza-koreografia, ahots-entonazioak, kontzertu didaktikoak, instrumentuen hastapena, e.a. Instrumentuen eskaintza zabalda da: akordeoia, gitarra, gitarra elektrikoa, baxua, pianoa..."

Musika Eskola ez da haurrei eta gazteei zuzendutako eskaintza soilik. Helduentzat eskaintza zabalik dago. Izen-ematea zabalik dago, hilaren 14ra arte.

Telematikoki edo aurrez aurre egin daiteke. Aurrez aurre egiteko Bastero Kulturguneko leihatilara jo behar da. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 10:30etatik 13:00etara, eta arratsalde, 16:30etik 19:00etara.



Saski ederra. AIURRI

Egunean Behin lehiaketa, sari eta guzti

'Aiurri' taldean, astean behin, Aspilla baserriko otarra zozkatuko da. Denboraldia hamar astez luzatuko da

Erredakzioa URNIETA

Egunean Behin lehiaketaren denboraldi berria aste honetan hasi da. Eta "Aiurri" taldeko partaideek 0KM saski eder bana jasoko dute, Aspilla prestaturikoa. Aiurri.eus webgunean lehiaketari eskainitako atal berezia sortu da, eta bertan aurki daiteke taldera batzeko esteka.

Hauexek dira lehiaketan parte hartzeko xehetasunak:

- "Aiurri" taldeko partaideen artean, aste bakoitzeko, Aspilla otar bana zozkatuko da.
- Eskualdeko elikagai ekologikoez gozatzeko aukera izango da, lehiaketak iraun bitartean.
- Kaxaren irabazlea partaidea otar bat izango da, ez du zertan irabazlea izan behar. "Onena"

ez, baizik eta "parte hartzailea" sarituko da.

- Saria eskuratu nahi duenak aste osoko partidak jokatu beharko ditu, nahitaez.
- Astelehenero irabazlearen berri emango da.
- Saridunak ostegunean jasoko du Aspilla otarra.
- Irabazlea Aduna, Amasa-Villabona, Andoain, Asteasu, Larraul, Urnieta eta Zizurkil udalerrietan bizi, ikasi edo lan egiten duena izan daiteke.

Aurreko denboraldian Aiurrik bat egin nahi izan zuen sagardotegien sektorearekin, pandemiak bigarren urtez zuzenean kaltetu baitu. Oraingoan, berriz, tokian tokiko baserriko produktak zozkatuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Naroa
Narora Irazu
Romanek 12 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Zorionak eta muxu handiak ebeko guztien partetik.



ANDOAIN

Zorionak Odile
Odile Igarrik
maiatzaren 7an 11 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak ebeko guztien partetik!



ANDOAIN

Leire Rekalde
Maiatzaren 6an 32 urte! Zorionak! Nahiz eta aurreko etxean ospatzea tokatzen zaigun, zuk segi horrela irribarretsu beti bezala.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

SALGAI

Lokal komertziala salgai Andoaingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza

egiteko aukera. 61.000 euro. **687 851 740** Edurne.

MERKATU

TXIKIAN

PARTE

HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus / 619 163 537
Tel.: 943 300 732
Arantzibia 4-5, behe. ANDOAIN

ODOL-EMAILEAK

URNIETA

Maiatzak 6, osteguna. 16:30. Lekaion odola eman nahi duten pertsonak deitu beharko dute txanda hartzeko: 943 00 78 85.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia
- Komunitatea

Pentsiodunen ahotsa Maiatzaren Lehenean

Azken urteotako mobilizazio jendetsuenak pentsiodunen eta feministen aldetik iritsi dira. Bi borroka horiek kontutan hartu zituen LAB sindikatuak, Hernanin deitu zuen eskualdeko manifestazioan. Ernaik bat egin zuen deialdiarekin

Jon Ander Ubeda HERNANI

Maiatzaren Lehena oharkabea igarotzen ari da, langile diren gehienentzat. Joera hori areagotu egiten da pandemia garaian, mugikortasuna galerazita baitago eremu gorrian dauden udalerrietan. Beterri-Buruntzako udalerrri gehien kasua da. Horregatik, Hernanin antolatu zuten eskualdeko manifestazioan LAB sindikatuko delegatu ugari agertu ziren. Eta, noski, hernaniarrak. Inguruko herrietako manifestari gehiago zeuden, baina ez gehiegi.

Miren Clementeren adierazpena

Pentsiodunen borrokaldiari tarte berezia eskaini zioten, manifestazioaren amaieran. "Gaur inoiz baino gehiago borrokatzea behar beharrezkoa da, bidezkoak diren eskubideen alde, unibertsala eta doakoa izan behar duen hezkuntza eta osasun zerbitzuen alde, gizon eta emakumezkoen desberdintasunak ezabatzeko,



Pentsiodunen izenean hitz egin zuen Miren Clementek. AIURRI

pertsona guztien giza eskubideak aitortearen alde, parte garen eta bizitza ematen digun naturarekiko errespetuagatik, herrien arteko elkartasunagatik".

"Pentsiodunen gehiengo zabalak langile klasekoak gara. Bizi

gara, sufritzen dugu eta gure eskubideen alde borrokan ari gara. Borrokan jarraitzen dugu, publikoa izan behar duen pentsio sistema baten alde. Pentsio duinak ziurtatzeko borrokan ari gara, gaurko eta etorkizunerako".



Maiatzaren Leheneko bi hitzorduak Hernanin egin ziren. Iluntzekoa GKS antolatu zuen. "Basakeria kapitalistaren aurrean sozialismoaren beharra lehen lerrora ekarri dugu, langile klasearen defentsarako antolakuntza komunista aldarrikatuz. Borrokan egingo dugu bat!", adierazi zuen koordinakundeak manifestazioaren amaieran.



Maiatzaren Lehenean hainbat pintada agertu ziren Andoaingo kaleetan. Andoaingo Herriko Etxearen aurrean egin zituztela ikusita, PSE-EEK gaitzespen oharra argitaratu zuen: "Nahikoa bide ditugu gure ideiak eta iritziak ondarea kaltetu gabe adierazteko". Andoaingo Udal Gobernu taldeak ere gaitzetsi egin zituen pintadak, antzeko argudioak erabilita.



**HEDABIDEekin
ERE BAI**



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



28 €

Harpidetza egiteko,
Aiarri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



**AIURRIKO
HARPIDETZA
KANPAINA
BEREZIA**

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Apirila-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 28 eurokoa baino ez da
INOIZ EZ DA BERANDU!

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago